



## II. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### Basauriko Udala

**Gizarte-arriskuak edo gizarte-bazterkeriak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko helburuarekin, aldizkakoak ez diren udal-laguntzak (AEUL), zuzenekoak eta ezohikoak, Basauriko bizilagunei ematea arautzen duten Oinarrien onartzea.**

Alkatearen 2023ko urtarrilaren 3ko 0005/2023 dekretuaren bidez Gizarte-arriskuak edo gizarte-bazterkeriak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko helburuarekin, aldizkakoak ez diren udal-laguntzak (AEUL), zuzenekoak eta ezohikoak, Basauriko bizilagunei ematea arautzen duten Oinarriak onartu dira.

Basaurin, 2023ko urtarrilaren 4an.— Alkatea, Asier Irigorri Basaguren

**ALDIZKAKOAK EZ DIREN BASAURIKO UDALAREN GIZARTE-LAGUNTZAK 2023: OINARRI ARAUTZAILEAK**

2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen xedea da EAEren eremuan gizarte-prestazio eta -zerbitzuak jasotzeko eskubidea sustatu eta bermatzea, eta, horretarako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsala arautu eta antolatzea.

Lege horretako 6. artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren (GZES) helburua ezartzen da. Hona hemen:

- a) Norberaren autonomia bultzatzea, eta mendekotasunetik eratorritako beharrian pertsonal eta familiarrak prebenitu eta artatzea.
- b) Babesgabezia-egoerek eragindako beharrianak prebenitu eta artatzea.
- c) Bazterkeria-egoerak prebenitu eta artatzea; eta norbanako, familia eta taldeen gizarteratzea bultzatzea.
- d) Larrialdi-egoerek eragindako behar pertsonal eta familiarrak prebenitu eta artatzea.

16. artikuluan GZESaren prestazio ekonomikoak definitzen dira. Eta 22.3 artikuluan, prestazio ekonomikoak kategorietan sailkatzen dira. Besteak beste, 3.5 prestazioak aipatu behar dira, alegia, GZESaren berezko helburuen esparruan ezar daitezkeen prestazio ekonomikoak. Oinarri hauetan araututako laguntzak kategoria horretan sailkatzen dira.

**1. artikulua. — Xedea eta definizioa**

Oinarri hauen helburua da arautzea zuzeneko eta ezohiko laguntzak ematea, eta, horren bidez, bazterkeria-egoerak prebenitu eta artatzea, eta pertsonen zein familien gizarteratzea sustatzea, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 c) eta 28.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat.

Udal laguntza hauek izaera ekonomikoko prestazioak dira. Beren helburua da gastu espezifiko ezohikoei aurre egiteko behar besteko baliabiderik ez duten basauriarrei laguntza ematea, eta, modu horretan, gizarte-bazterkeria egoerak prebenitzea, ekiditea edo arintzea.

Era berean, laguntzok helburu jakin baterako ematen dira, eta, beraz, eman diren xede horretarako erabili beharko dira, bakar-bakarrik.

Bestalde, ematen diren urte naturalean sortutako beharriari aurre egitera bideratuko dira.

Izaera subsidiarioa eta, hala badagokio, osagarria dute, indarreko legerian aurreikusitako mota guztietako gizarte-prestazio eta baliabideei dagokienez.

Udal laguntza hauek emateko, nahitaezkoa izango da gizarte-langileak balorazio profesionala egitea —alegia, beharrianen hasierako balorazioa egitea, gizarte-bazterkeria egoerak baloratzeari buruzko indarreko legerian oinarrituta—.

**2. artikulua. — Onuradunak: baldintzak eta betebeharrak**

Baldintza orokorrak

Aldizkakoak ez diren udal laguntzak jaso ahalko dituzte honako baldintza orokor hauek betetzen dituztenak:

- a) Gizarte-langile arduradunarekin adostutako arreta pertsonalizatuko plan batean parte hartzea. Gizarte-langileak txostena egingo du, eta txosten horrek arduradun teknikoaren oniritzia jaso beharko du. Prestazio honen izapidetzea, berez, ezarritako gizarteratze-prozesuaren barruko jarduera bat izango da.
- b) Adin nagusikoa izatea (adin txikikoak beren kargura dituzten adin txikikoen kasuan izan ezik).
- c) Kontzeptu bakoitzerako zehaztutako diru-sarrerak eta ondarea ez edukitzea.
- d) Laguntzaren kontzeptu bakoitzerako eskatutako baldintza espezifikoak betetzea.



## Betebeharrak

Honako hauek izango dira aldizkakoak ez diren udal laguntzak jasotzen dituztenen betebeharrak:

- a) Jasotako prestazioak erabiltzea emanak izan diren xederako.
- b) Jasotako laguntzak justifikatzea, elikadura-gastuak izan ezik (horietan ez da gastu-ziurtagiririk eskatuko).
- c) Jasotzaileak bere gizarte-langileari jakinaraztea, berehala, prestazioak jasotzea ahalbidetu zuten baldintzen gaineko edozein aldaketa. Zehazkiago, honako hauei dagokienez:
  - Aldaketak bizikidetzako unitatean.
  - Aldaketak ohiko bizilekuaren gainean.
  - Aldaketak prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko aintzat hartutako diru-sarrera eta/edo ondarean.
- d) Akatsen bat dela eta eskuratutako, edo behar baino kopuru handiagoan emandako kopuruak itzultzea.
- e) Gizarte Zerbitzuetara etortzea, eta haiekin batera lan egitea, hala eskatuz gero.
- f) Gizarte-langilearekin adostutako arreta pertsonalizatuko plana betetzea.

## 3. artikulua.— **Laguntza motak, zenbatekoak eta horietako bakoitza eskuratzeko baldintzak**

### 3.1. Ohiko bizilekuari lotutako beharizanetarako laguntzak

#### Baldintza orokorrak

- Behar besteko diru-sarrerarik ez izatea; alegia, urteko diru-sarrerak ez izatea DSBEaren zenbatekoa baino bi aldiz handiagoak (oro har, aurreko urteko zenbatekoa aintzat hartuta eta, betiere, bizikidetzako unitateko kideen kopuruaren arabera).
- DSBerako ezarritako ondare-mugaren 1/3 baino ondare handiagoa ez izatea (oro har, aurreko urteko zenbatekoa aintzat hartuta eta, betiere, bizikidetzako unitateko kideen kopuruaren arabera).

#### 3.1.1. Ostatu-gastuetarako laguntzak

Laguntza horiek honako hauetarako dira:

1. Ohiko bizilekua utzi behar dutenei presaz eta aldi batez ostatu emateko beharrezko gastuetarako.
2. Etxegabetzeak ekidin eta/edo geldiarazteko gastuetarako.
3. Etxebizitza edo ostatua lortzeko gastuetarako.
4. Ohiko bizilekuan errentamendua edo ostatua bermatzeko gastuetarako.

#### Baldintza espezifikoak

- Basaurin erroldatuta egotea eskabidea baino 6 hilabete lehenagotik, gutxienez. Salbuespenak:
  - a) Adin txikikoak beren ardurapean dituzten familiak.
  - b) Emakume haurdunak.
  - c) Genero-indarkeria edo etxeko indarkeria pairatzen duten pertsonak.
  - d) Bazterkeria-arrisku larrian daudenak.Kasu horietan, 3 hilabeteko erroldatzea eskatuko da bakarrik.

#### Zenbatekoak

Gehienez ere, 2.400 euro emango dira. Azpierrentamendu- edo ostatu-gastuen kasuan, ordea, 1.200 euro emango dira.



### 3.1.2. Argindarrerako, eta etxebizitzaren mantentze-lanetarako eta zaintza-lanetarako laguntzak

Energia-gastuetarako, konponketetarako, etxetresna elektrikoetarako, energia-gastuengatiko zorretarako eta etxebizitzan mantentze-lanak egiteko laguntzak dira.

#### Baldintza espezifikoak

— Basaurin erroldatuta egotea eskabidea baino 1 urtebete lehenagotik, gutxienez. Salbuespenak:

- a) Adin txikikoak beren ardurapean dituzten familiak.
- b) Emakume haurdunak.
- c) Genero-indarkeria edo etxeko indarkeria pairatzen duten pertsonak.
- d) Bazterkeria-arrisku larrian daudenak.

Kasu horietan, 6 hilabeteko erroldatzea eskatuko da bakarrik.

#### Zenbatekoak

Gehienez ere, 1.100 euro energia-gastuetarako, mantentze-lanetarako eta zorretarako; eta 925 euro konponketak egiteko eta etxetresna elektrikoetarako.

### 3.2. *Sustapen pertsonalerako eta familia-sustapenerako laguntzak*

#### Baldintza orokorrak

- Behar besteko diru-sarrerarik ez izatea. alegia, urteko diru-sarrerak ez izatea DS-BEaren zenbatekoa baino bi aldiz handiagoak (oro har, aurreko urteko zenbatekoa aintzat hartuta eta, betiere, bizikidetzako unitateko kideen kopuruaren arabera).
- DSBerako ezarritako ondare-mugaren 1/3 baino handiagoa den ondarea ez izatea (oro har, aurreko urteko zenbatekoa aintzat hartuta eta, betiere, bizikidetzako unitateko kideen kopuruaren arabera).

#### 3.2.1. Prestakuntza-gastuetarako laguntzak

Erakunde publikoen laguntzarik jasotzen ez dituzten prestakuntza-prozesuen eta/edo lan-trebakuntzaren ondoriozko gastuak: matrikulak eta kuotak, garraioa, tituluaren homologazioa eta abar.

#### Baldintza espezifikoak

— Basaurin erroldatuta egotea eskabidea baino 12 hilabete lehenagotik, gutxienez. Salbuespenak:

- a) Adin txikikoak beren ardurapean dituzten familiak.
- b) Emakume haurdunak.
- c) Genero-indarkeria edo etxeko indarkeria pairatzen duten pertsonak.
- d) Bazterkeria-arrisku larrian daudenak.

Kasu horietan, 6 hilabeteko erroldatzea eskatuko da bakarrik.

#### Zenbatekoa

Gehienez ere, 600 euro.

#### 3.2.2. Haurtzaindegietan eskolaratzeko gastuetarako laguntzak

Bizikidetzako unitateko adin txikikoak haurtzaindegietan edo 2 urteko geletan eskolaratzeagatiko gastuei aurre egiteko laguntzak dira. Helburu dute gurasoei edo legezko tutoretza duen pertsonari lan-mundura itzultzeko erraztasunak ematea.

#### Baldintza espezifikoak

Basaurin erroldatuta egotea eskabidea baino 6 hilabete lehenagotik, gutxienez. Salbuespenak:

- a) Adin txikikoak beren ardurapean dituzten familiak.
- b) Emakume haurdunak.



- c) Genero-indarkeria edo etxeko indarkeria pairatzen duten pertsonak.
- d) Bazterkeria-arrisku larrian daudenak.

Kasu horietan, 3 hilabeteko erroldatzea eskatuko da bakarrik.

#### Zenbatekoa

Gehienez, 1.350 euro, adin txikiko bakoitzeko.

#### 3.2.3. Bizikidetzako unitateko adin txikikoen jardueren ondoriozko gastuetarako laguntzak

Bizikidetzako unitateko adin txikikoek teknikoki garrantzitsu eta beren garapen pertsonal eta/edo sozialerako beharrezko gisa baloratutako jardueretan parte hartzeagatik gastuei aurre egiteko laguntzak dira.

#### Baldintza espezifikoak

Basaurin erroldatuta egotea eskabidea baino 6 hilabete lehenagotik, gutxienez. Salbuespenak:

- a) Adin txikikoak beren ardurapean dituzten familiak.
- b) Emakume haurdunak.
- c) Genero-indarkeria edo etxeko indarkeria pairatzen duten pertsonak.
- d) Bazterkeria-arrisku larrian daudenak.

Kasu horietan, 3 hilabeteko erroldatzea eskatuko da bakarrik.

#### Zenbatekoa

Gehienez, 540 euro, adin txikiko bakoitzeko.

#### 3.3. Beste laguntza batzuk

##### 3.3.1. Oinarrizko beharrianak

Elikaduraren, jantzien eta oinarrizko tresnen (batez ere, umeentzako tresnen) beharriari aurre egiteko laguntzak.

#### Baldintzak

– Basaurin erroldatuta egotea eskabidea baino 6 hilabete lehenagotik, gutxienez. Salbuespenak:

- a) Adin txikikoak beren ardurapean dituzten familiak.
- b) Emakume haurdunak.
- c) Genero-indarkeria edo etxeko indarkeria pairatzen duten pertsonak.
- d) Bazterkeria-arrisku larrian daudenak.

Kasu horietan, 3 hilabeteko erroldatzea eskatuko da bakarrik.

– Behar besteko diru-sarrerarik ez izatea; alegia, urteko baliabideak ez izatea aurreko urteko DSBEaren zenbatekoaren % 75 baino handiagoak. Bizikidetzako unitateko kideen kopurua ere aintzat hartuko da.

– 3.000 eurotik gorako ondarea ez izatea.

#### Zenbatekoa

Gehienez ere, 900 euro.

##### 3.3.2. Osasunaren alorreko beharrianak

Gizarte Segurantzak ordaintzen ez dituen farmazia-gastuak, tratamendu psikopedagogikoak, errehabilitazio-tratamenduak, logopedia, protesiak, betaurrekoak, audifonoak eta dentista-gastuak, horien beharrianak jasotzen duen osasun-txostena aurkeztuta.



## Baldintzak

- Basaurin erroldatuta egotea eskabidea baino 6 hilabete lehenagotik, gutxienez. Salbuespenak:
  - a) Adin txikikoak beren ardurapean dituzten familiak.
  - b) Emakume haurdunak.
  - c) Genero-indarkeria edo etxeko indarkeria pairatzen duten pertsonak.
  - d) Bazterkeria-arrisku larrian daudenak.Kasu horietan, 3 hilabeteko erroldatzea eskatuko da bakarrik.
- Behar besteko diru-sarrerarik ez izatea; alegia, urteko diru-sarrerak ez izatea DS-BEaren zenbatekoa baino bi aldiz handiagoak (oro har, aurreko urteko zenbatekoa aintzat hartuta eta, betiere, bizikidetzako unitateko kideen kopuruaren arabera).
- DSBerako ezarritako ondare-mugaren 1/3 baino handiagoa den ondarea ez izatea (oro har, aurreko urteko zenbatekoa aintzat hartuta eta, betiere, bizikidetzako unitateko kideen kopuruaren arabera).

## Zenbatekoa

Gehienez ere, 900 euro.

### 3.3.2. Arreta pertsonalizatuko planerako laguntzak

Arreta pertsonalizatuko plana betetzeko beharrezko gastuak, udal laguntza hauen aurreko ataletan edo babes sozialeko beste sistema publikoetan aurreikusi ez direnak. Beharrezkoa izango da txosten tekniko batek jasotzea ezinbestekoa dela horretarako laguntzak ematea.

## Baldintzak

- Basaurin erroldatuta egotea eskabidea baino 6 hilabete lehenagotik, gutxienez. Salbuespenak:
  - a) Adin txikikoak beren ardurapean dituzten familiak.
  - b) Emakume haurdunak.
  - c) Genero-indarkeria edo etxeko indarkeria pairatzen duten pertsonak.
  - d) Bazterkeria-arrisku larrian daudenak.Kasu horietan, 3 hilabeteko erroldatzea eskatuko da bakarrik.
- Behar besteko diru-sarrerarik ez izatea; alegia, urteko diru-sarrerak ez izatea DS-BEaren zenbatekoa baino handiagoak (oro har, aurreko urteko zenbatekoa aintzat hartuta eta, betiere, bizikidetzako unitateko kideen kopuruaren arabera).
- 3.000 eurotik gorako ondarerik ez izatea.

## Zenbatekoa

Gehienez ere, 900 euro.

## 4. artikulua. — Irizpideak

Bizikidetzako unitaterako gizarte-izaerako laguntza bat eman ahalko da urtean.

Salbuespenez, laguntza eman den urte berean beharizan berri bat sortuz gero, kasua daraman gizarte-langileak bigarren laguntza bat emateko proposamena jaso behar du behar du txosten batean, eta arduradun teknikoak oniritzia eman behar dio txosten horri.

Urte berean, salbuespenez, laguntza bi ematen badira, urteko gehieneko zenbatekoa 3.700 euro izango da. Eskatutako laguntzetako bat ostatu-laguntza bada, urteko gehieneko zenbatekoa 5.000 euro izango da.

**5. artikulua. — Diru-sarrerak eta ondarea zehaztea**

Baliabideak konputatzeko eta diru-sarrerak eta ondarea zehazteko, oinarri hauetan aurreikusi gabeko kontuetarako, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak ezarritakora joko da.

**6. artikulua. — Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak aurkezteko epea zabalik egongo da oinarri hauek argitaratzen direnetik 2023ko abenduaren 1a arte. Salbuespenez, ostean aurkeztutako eskabideak ere izapidetuko dira, baldin eta gizarte-langileak beharizan egoera abenduaren 1a eta gero detektatu badu, eta beharizan larria dagoela justifikatzen badu.

**7. artikulua. — Finantziarioa**

Aldizkakoak ez diren 2023ko udal laguntzak 50.000,00 euroko aurrekontu-kreditu baten kontura finantzatuko dira, zeina partida honetan jasota baitago: 11.2314.48099, «Transferentzia arruntak familiei. Gizarte-izaerako laguntzak».

Aipatutako udal laguntzak emango dira aurrekontu-kreditua agortu arte.

**8. artikulua. — Eskabideak****8.1. artikulua. — Eskabideak aurkeztea**

Gizarte-izaerako laguntzetarako eskabideak Basauriko Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan egin eta aurkeztuko dira.

Eskatzaileak, behar bezala betetako eskabideaz gain, honako hauek ere aurkeztu beharko ditu:

- a) Bere NANaren fotokopia, eta, behar izanez gero, bizikidetzako unitateko gainerrako kideena.
- b) Familia-liburuaren fotokopia eta/edo, hala badagokio, zaintza edo tutoretza egiaztatzen duten dokumentuak.
- c) Banantze-epaia eta hitzarmen arauemailea. Eta, edukiz gero, epaitik eta/edo hitzarmenetik ondorioztatutako konpromiso ekonomikoen azken ordainketaren fotokopia.
- d) Etxebizitzaren errentamendu-kontratua, ohiko bizilekuaren ostatu-gastuetarako laguntzen kasuan.
- e) Lan-kontratua eta azken 3 nominak.
- f) Lan-eskatzaile ziurtagiria.
- g) Jaioterriko ondasunen ziurtagiria, edo berau eskatu izanari buruzko zinpeko aitortpena.
- h) Udal laguntza helbideratzeko, eta, hala badagokio, endosua egiteko banku-agiria.
- i) Banku-saldoak.
- j) Laguntzaren xede diren fakturak edo gastu-aurrekontuak.
- k) Eskatzailearen ondasun higigarrien eta higiezinen ziurtagiriak, eta, hala badagokio, bizikidetzako unitateko kide guztienak (foru- eta estatu-mailakoak).
- l) Bizikidetzako unitateko kide guztien diru-sarreraren ziurtagiriak: nominak, pensioak, prestazioak, subsidioak eta edozein motatako diru-sarreraren egiaztapenak.
- m) Azken errenta-aitorpenaren kopia, edo, hala badagokio, berau egin behar ez izateari buruzko ziurtagiria, Ogasunak emandakoa.
- n) Gizarte-langile arduradunak beharizan-egoera egiaztatze eskatutako beste edozein dokumentu.
- o) Bizikidetzako unitateko kide guztien baimena, administrazio-prozedurei lotutako datuak kontsultatu edo egiaztatu ahal izateko. Honako hauek izango dira egiaztatutako direnak:



- Nortasun-datuak
- Erroldatze egiaztagiria
- Udal edo udalaz gaindiko laguntzen zenbatekoak (ELE)
- Gizarte Segurantzako prestazioen zenbatekoak
- Langabezia-prestazioaren zenbatekoak
- Lan-bizitzaren ziurtagiria
- Ondasun higieziinei buruzko Katastroaren ziurtagiria
- Prestazioak jasotzeko buruzko ziurtagiria eta horien zenbatekoa (DS-BEa-ELO).

Salbuesenez, udal laguntza izapidetu ahalko da jaioterriko ondasunen ziurtagiria jaso gabe, baldin eta jasotzailea beharrian larrian badago, ziurtagiri hori eskatu izanari buruzko zinpeko aitortpena egiten badu eta agiria bi hilabeteko epean aurkezteko konpromisoa hartzen badu.

Jaioterriko ondasunen ziurtagiria aurkeztean ikusten bada interesdunari ez zegokiola laguntza, jasotakoa bueltatzeko prozesua hasiko da.

#### **8.2 artikulua. — Azkartasun eta administrazio-ekonomia printzipioak**

Herritarrek eskubidea dute administrazioek dagoeneko badituzten datu eta dokumentuak ez aurkezteko. Horren harira, Basauriko Udalak beharrezko neurriak hartuko ditu eskubide hori babesteko, azkartasun eta administrazio-ekonomia printzipioak betetzeko eta administrazioen arteko lankidetzeta eta koordinazio betebeharra betetzeko.

Horrela, bada, Basauriko Udalak aurkeztutako dokumentazioa osatuko du, honako dokumentu hauekin:

- Bizikidetzeta-ziurtagiria, behar izanez gero.
- Errolda-ziurtagiria eta ibilgailuena.
- Gizarte Zerbitzuen txosten teknikoak, non preskripzio teknikoak jasoko baita.

#### **9. artikulua. — Izaera pertsonaleko datuak babestea**

Basauriko Udalaren Gizarte Zerbitzuek onuradunen aitortpenak egiaztatu ahalko dituzte, eta beharrezkoak diren datu eta txostenak eskatu ahalko dizkiete beste erakunde edo entitate publiko eta pribatuei, interesdunak horretarako baimena ematen badu.

Zehazkiago, baliabide elektronikoak erabiliiko dira informazio hori lortzeko, baldin eta, izaera pertsonaleko datuen kasuan, interesdunek baimena ematen badute, honako araudi hauek ezarritako baldintzetan: izaera pertsonaleko datuen tratamenduari buruzko 3/2018 Legea; eta Europako Parlamentuaren eta 2016ko apirilaren 27ko Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua, pertsona fisikoen datu pertsonalen tratamendua eta datu horien zirkulazio askea babesteari buruzkoa. Baimen hori elektronikoki eman eta jaso ahalko da.

#### **10. artikulua. — Emateko, ebazteko, jakinarazteko eta jarraipena egiteko prozedura**

Laguntza hauek zuzenean ematen dira, oinarri arautzaile hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ostean, eta, betiere, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 c) artikuluan aurreikusitakoa beteta (lege horretako 28. artikulua 2. eta 3. ataletan xedatutakoarekin bat), non jasotzen den interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak tarteko egonez gero, zuzenean emateko aukera egongo dela.

Espedientea alkatetzeta dekretu bidez ebatziko da.

Ebazteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, eskabidea aurkezteko dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori igarota ebazpen espresurik eman ez bada, joko da laguntza-eskaera ez dela onartu, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 30/2015 Legearen 24.1 artikulua xedatutakoarekin bat.





Udalak laguntza eman edo eskabidea ez onartzeari buruzko ebazpena jakinaraziko dio eskatzaileari, egintzaren datatik 10 eguneko epean.

Basauriko Udaleko Gizarte Zerbitzuek laguntza hauen onuradunen jarraipena egingo dute, egiaztatzeko emandakoa aurreikusitako xedeetarako erabiltzen ari direla eta beharrezana eragin zuen egoerak bere horretan jarraitzen duela.

Laguntza dagokion xederako erabiltzen dela bermatzeko, kasu batzuetan, eta onuradunak aurretiaz bere adostasuna emanaz gero, zenbatekoa zuzenean eman ahalko zaie zerbitzua ematen duten hirugarrenei, edo, hala badagokio, Basauriko Udalaren Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan diharduten hirugarren sektoreko entitateei.

Laguntza ordainketa bakarrean edo batean baino gehiagotan egin ahalko da.

#### **11. artikulua.— *Justifikazioa***

Laguntzak justifikatzeko, beraien xede diren kontzeptuei buruzko ordainagiri eta/edo fakturak aurkeztu beharko dira. Salbuespenez, elikadura-gastuak ez dira justifikatu beharko.

2024ko urtarrilaren 31 izango da justifikazioa aurkezteko azken eguna.

2023ko azken hiruhilekoan emandako laguntzen kasuan, adierazitako epea 2 hilabetez luzatu ahalko da, baldin eta inguruabar bereziak suertatzen badira eta dagokion gizarte-langileak txostena egiten badu, adieraziz zein den ezarritako epean ez justifikatzeko arrazoia.

Laguntza justifikatu ezean, emandako zenbatekoa itzuli beharko da (elikadura-gastuen kasuan izan ezik), kobratu behar ez zena bueltan jasotzeko prozesu baten bitartez.

#### **12. artikulua.— *Aplikatu beharreko araubide juridikoa***

Aldizkakoak ez diren udal laguntzak honako hauek araututa egongo dira: oinarri arautzaile hauek; Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea; Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea; diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta bere Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuz onartutakoa), publizitate eta konkurrentzia printzipioei dagokienean izan ezik; 3/2018 Legea, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko; eta Europako Parlamentuaren eta 2016ko apirilaren 27ko Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua, pertsona fisikoen datu pertsonalen tratamendua eta datu horien zirkulazio librea babesteari buruzkoa.

#### **13. artikulua.— *Emandako laguntzen publizitatea***

Ez da egingo emandako laguntzei buruzko ebazpenen publizitaterik, onuradunen ohorea eta intimitate pertsonal zein familiarra babestearen aurkakoa delako. Izan ere, ohorerako, intimitate pertsonal eta familiarerako eta norberaren irudirako eskubideak babes zibila jasotzen dute, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 20.8 c) artikulua araber.